

GOBERNU BATZARRA

2016. 11. 14

Alkatea: Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamaseiko azaroaren hamalauan, goizeko 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

Olatz Peon Ormazabal

Zinegotziak:

Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Iñigo Alonso Sarasibar

1.- Aurreko akta onartzea.

Behin behiniko Idazkaria: 2.-Tolosako Biziketza Foroaren 2016ko dirulaguntzaren %50eko aurrerapena ordaintzeko proposamena.

Karmele Contreras

Kontuhartzailea: 3.- Kondeaneko Aldapa 11-N babes ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 2. ziurtagiria (03/16 faktura).

Ainhoa Molinos Zubiaurre

4.- San Fermin Txiki. Dirulaguntza.

5.- 36/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2016ko azaroaren 7an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Tolosako Bizikidetzaren Foroaren 2016ko dirulaguntzaren %50eko aurrerapena ordaintzeko proposamena.

Tolosako Bizikidetzaren Foroak, 2016. urterako 3.530,78 euroko dirulaguntza eskaera luzatu zion Udalari, aurtengo apirilaren 28an. Eskaera bertan, aurkeztutako aurrekontuan oinarrituta, %50eko aurrerapen bat eskatzen zuten, urtean zehar sortuko ziren gastuei aurre egin ahal izateko.

Eskaera aztertu eta gero, eta kontuan izanik Bizikidetzaren Foroak Tolosan egiten ari den lana bizikidetzaren alorrean, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2016 urterako 3.530,78 euroko dirulaguntza ematea Tolosako Bizikidetza Foroari.

BIGARRENA.- Dagoeneko sortu zaien gastuei aurre egin ahal izateko, orain 1765,39ko aurrerapena ematea (aurreikusitakoaren %50a). Horretarako zergak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunan izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte.

HIRUGARRENA.- Bigarren zatia jasotzeko Bizikidetza Foroak hurrengo agiri hauek aurkeztu beharko ditu: Tolosako Udalak diruz lagundutako jardueren memoria, diru-kontuen balantzea, zergak eta Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria, eta diru laguntza zuritzeko adinako fakturak edota berauen fotokopia konpultsatuak.

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesatuari eta Kontuhartzaitzari.

3.- Kondeaneko Aldapa 11-N babes ofizialeko 11 etxebizitza gauzatzeko obren 3. ziurtagiria (03/16 faktura).

Tolosako Udalak Kondeaneko Aldapa UTE-ri esleitu zion "Kondeaneko Aldapako 11- 15.3 azpiesparruan Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren kontratua, eta 732.842,40€ izan zen esleipenaren zenbatekoa.

Ziurtagiri zenbakia.....Faktura zenbakia..... Zenbatekoa

1. ziurtagiria.....	01/16.....	100.842,98€
2. ziurtagiria.....	02/16.....	76.294,90€

GUZTIRA.....177.137,88€

Orain aurkezturiko ziurtagiria, obrako bigarrena, honakoa da:

3. ziurtagiria.....	03/16.....	92.610,55€
----------------------------	-------------------	-------------------

Ziurtagiria ikusita, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Onartzea "Kondeaneko Aldapako 11-15.n Babes Ofizialeko 11 etxebizitza" egiteko obren 3. ziurtagiria, **92.610,55€**koa.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea adjudikaziodunari, Kondeaneko Aldapa UTE-ri eta Kontuhartzailtzari.

4.- San Fermin Txiki. Dirulaguntza.

Gobernu batzarrak bi mila eta hamaseiko apirilaren 11an auzoetako jaiek eta jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko, honako dirulaguntza hau ematea onartu zuen:

..//..

Alde Zaharra-----1.556 €

..//..

2016ko martxoaren 31an, Ana Maria Varea Tamayok "Errota San Fermín Txiki" taldearen izenean uztailaren 9an "San Fermin txiki" izeneko festa antolatzeko baimena eskatu zuen.

2016ko apirilaren 8an, 637 zenbakia duen Alkatetza Dekretuaren bitartez, festa gauzatu dadin baimena jaso zuen.

2016 irailaren 7an, Ana Maria Varea "Errota San Fermin txiki" taldearen izenean 2016 uztailaren 7an alde zaharrean antolatutako "San Fermin Txiki" izeneko jaiaren dirulaguntza kitapena aurkeztu zuen.

Kultura eta Jaietako koordinatzaileak egindako txostenaren arabera, Gobernu Batzarrak 2016 apirilaren 11an hartutako erabakian "Alde Zahar" auzoetako jaiak jarduerak sortutako gastuei aurre egiteko onartutako dirulaguntza "Errota San Fermin Txiki" taldeak antolatu duen "San Fermin Txiki" jaia antolatzeko dela. Aipatutako herri talde eragile hau izaera juridikorik gabea izanik, udalarekin harremana izan duen eta eskaera guztien titularra izan den Ana Maria Varea Tamayo dela hain zuzen ere dirulaguntzaren onuraduna izan behar duena.

Hortaz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Gobernu Batzordeak 2016ko apirilaren 11an hartutako erabakia zuzentzea, eta "Alde Zaharra" izenburupean onartutako 1.556 €-tako dirulaguntzaren onuraduna "Errota San Fermin Txiki" taldeko ordezkaria den Ana Maria Varea Tamayo izatea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea interesaruari, Kultur departamentuari eta Kontuhartzailtzari.

5.-36/2016 zenbakia duen faktura-zerrenda.

Kontuhartzailtzak **36/2016** faktura zerrenda aurkeztu du; **218.296,94 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

E R A B A K I D U

LEHENA.- **36/2016** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzailtzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 09:00etan.

ALKATEA

IDAZKARIA

Olatz Peon Ormazabal

Jose Luis Unanue Ugalde